

# IKUSEZINEAN BIDAIATZEN

Eraldaketa feministarako Antolakundeko aldaketa



## GATAZKAK Urratsez urrats neurritz hornitzera

### A EUSKARRIA) GATAZKAN MURGILDU

Gatazkak giza harremanen eta funtzionatzen ez duen horren eraldaketa eta aldaketa aukeren oinarri direla badiogu, edo horiek sortzen dituen sistema bidegabe eta indarkeriazkoaren adierazle direla, agerian uzten duten egoera bihurtzeko aprobetxatu nahiko dugu. Eta horrela, gure harremanetan eta kolektiboetan hazi. Horregatik, **neurritz hornitzeaz hitz egiten dugu, horrek gatazkei indarkeriarik gabe heltzeko gaitasun, baliabide eta tresnez hornitzeari egiten dio erreferentzia.**

Neurritz hornitzeak taldearen bizitza, funtziona dezan zaindu eta landu behar den arlotzat jotzea dakar. Trebetasun individual eta kolektibo batzuk garatzera bideratutako prozesua da, talde giroa sendotuta eta proiektu komunari lagunduko dion komunikazio erraz eta indarkeria gabeko bultzatuta. (Colectivo Cala taldearen Talde Eraikuntzaren Piramideak).

Neurritz hornitzeak gatazkei ekiteko kudeaketa emozionalean eta komunikazioan entrenatzeko aukera emango digu, bai eta negoziaketan ere; giroa, komunikazioa eta proiektu komunean norberaren inplikazioa eta parte hartzea hobetuz, kooperazioaren, negoziaketaren eta gatazken kudeaketa positiboaren kultura sendotuz.



Ikuspuntu zabalago honetatik ibilaldi honek, gatazken kontrolerako momentu batetara iritsita, **adostasunerako negoziaketa sustatzeko gomendio batzuk proposatzen dizkigu.**

**NEGOZIAKETAZ** hitz egiten dugu adostasunezko erabakiak hartzei erreferentzia egiteko, aurretik esandako guztia praktikan jarrita. Bide berriak aztertzean datza, bozketa eta gehiengoetatik kanpo, erabakiak hartzeak berdintasunezkoak, parte hartzaileak eta ez sexistak izatea bultzatuta; azken erabakian pertsona guztiek euren iritzia islatuta ikusiko duten eta guztiek euren ikuspuntua eman ahaliko duten prozesuak martxan jarrita.

\* Testu hau Protocolo de actuación para la prevención, identificación e intervención contra las violencias machistas. Aprendiendo a regular conflictos y cuidar la vida del grupo para un trabajo en equipo no heteropatriacal. Setem Hego Haizea. Eta bere Aplikazio Gidatik egokitua da. Dokumentu osoaren irakurketa gomendatzen dugu.

